

ko guna ta mamiña, biar dabezan ondo ta zuzen jakifeko, irakasle ego-riagorik gitxi. Betor ba len bai len biar-biafekua dogun «Emakume-bizitza» ori.

Urteroko ikastaruak
amaitu ondoren, efera jatorkuzan adizidiari, gure zorionagaz batera gure gura. Udaldi gozo bat izango al dogue, eta aufera jafatuteko agertu jatzuezan edo baltzak egualdi obiaruakaz ufunduko al dira.

Jakin dogunez,
kazale batzuri, euren lekaide ta lekaine irakaslak, Amerika'ra ta erbezero doiazalako, agur ilun eta luzia egin eutsen. Ekaitxaixia jabilku inuruetan pufutzadaka. «Ondo egiñen arija agur negargafija» Baia juaten irian guztijak ez dira betiko juaten. Bijotz azko deika dagoz, eta bijotzen eijak ibili ta ibili, entzunak izango dira. «Matasun oñazea bai dala andia...»

Artietan, mañe doguzanok,
geure artian bafiro eukiteko duindu gafezan. Datozeneko, bafiztuta aurkitaten bagatuez, ekatx ondorengiak ez dira kaltegarrijak bakafik izango. Osasuna be, zenbaterainokua dan ez da jakifin galtzen dan arte.

Jayotza.
Mejias'tar Ander eta Foruria'tar Zoila'k ixan daben alabatxu bafijari, Maria Begoña, izena ipiñi deutse. Zorionak.

Erijotza.
Bakeritza'tar Koikile'n arimien alde ileta edefak egin zirian oraintzu efi onetako txadonian. Beren guraso, emazte, alaba ta zenidiari gure zamiñ agufik beruena. (G. B.)

LILI-ERKA

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizafak, zumitz ugar-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekañe, 50 BILBAO

Ubide.
Igaro dan astean eurie ugari izan da. Lufak asetu dira, ta basefitafak aspertu ainbeste euri ta axe otsekin, ubaña odeiak agortu ete-dira zati baterako? Ikusi egin biar.

Madriñen gexoturik etofi da Le-ku'e'tar Miren neskatilia. Arin osatu. Egun batzuk kanpua igarota etxe-ratu dira Ibargutxi'tar Teresa ta Uri-bafit'ar Agate.

Bilbao'tik etofi da Latxa'tar Edite. Kastilo'ko ikastetxetik etxeratu dira Ibargutxi'tar Pidel, Ibargutxi'tar Emiliano ta Bafondo'tar Josu ikasle bizkofak.

Ofilako lorak amaituta Jesusen Biotzaren aintzan eleixkizunak sfas-tietan egiten dira. Asko batzen da. TXINPARTA

Eunak eta soñeko egliñak
Zeara'tar Erupin
Cenderia 15 Bilbao

Ereño.
Ereñozar'ko batsara.
Iragafita eguan lez egin gendun jeltzaliok geure batzafa; baña ez Ereñozar'en, egurdijek ezeuskun lagundu-ta, Ereño'ko txadon nagusi-ian egiñ gendun.

Amafetako jaupa amaitu ondoren gertatu giñan txadonarako. Aztelafa'tar Andoni zuzendari genduela urten gendun Arabastar'etik geure Batzo-kiko Emakume Abertzaleko ikufiñe-gaz. Jel Batzokiko ikufiñe eruen ebana Biritxinaga'tar Joseba Andoni ixan zan eta aife bitxi Afupe'tar Pantzes-

ka ta Ormaetxea'tar Kepe eta Emakumierna eruan ebana bafiz Agife'tar Em le eta afa bitxi ta amabitxi Biritxinaga'tar Joseba eta Ufuria'tar Alo-dia. Ikufin edefok onefsi eta jaupa emon ebana Zamaloa'tar Peli txau-buru jauna ixan zan. Gotzon jaupa abestu eben ederto Txara-Txara eta enparauko abezlarjok korutik eta Emakumiok betik. Ormaetxe'tar Lon-tzi abak egiñ euskun iñioz be entzun eztogun lako txonitza. Jaupa amaitu-takuan Iñaki abestu gendun eta gero dantza itzali ta abar amaitu zan jaia. Jai onen edertasunez ikaratuta gure aizkiden (?) bat geixetu edo egin ei-da.

KUKUPRAKA

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.)

Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak

Castilla, 31 VICORIB

Munitibar.

Eleixkizunak.

Eleixkizun edefak euki doguz igaro dan ilian bai astegunetan eta bai igandietan. Notin asko eldu gara gure Eleizara. Itzaldiak gustiz edefak egin dituz gure txauburu dan Su-saeta Jaunak eta askenez Maria'ren alabok gustiz abesti gosuakin amaeria emon dautsagu ilari.

Jaiotza.

Maguregi'tar Antoniok eta Zabala'tar Pantzeskak seme eder bat ixan dabe eta bateatzean Gotzon euzkel-izena ezafi dautse. Zorionak bere bere gurasoai.

OIZBAÑENKO

Abadiño.

Iapar baltza.

Loizate'tar Jose Luis Ikurton deunak eta Doipuruaren onespina artuta Jaungoikoaren besoetan igaro dan astean il zan. Guraso Eustakio, seme alaba ta enparau senideai atsekabean lagundu ta irakurliai otoitz bat bere gogoaren alde eskatzen dautsegu.

Jayotzak.

Irazola'tar Florenzio ta Garate'tar Manuelan alabatxo bat Lucia izenagaz igaro dan astean ugutzau zan. Derteano'tar Ilario ta Gefikaetxe-bafia'tar Florentinan semetxu bat be Eugenio izenagaz. Zorionak.

Naskaldia.

Boneta'tar German Madrid'tik bere emazte ta sendiagaz udaldia igaroten ehiratu da. Ondo etofiak izan dedizela. Agife'tar Eli be Gazteiz'tik Batxilereko urte bi onartuta etxeratu da. Ezkoriaza'tar Endika eta Nebreda'tar Fernando be bai. Abade-ikaste Salterain'tar Tomas, Zuazua'tar Teodoro, Afinda'tar Juan Maria, Kamara'tar Joakin, Gaztelu Itufi'tar Silvestre eta Pujana'tar Jose Gazteiz'tik etxeratu dira. Zorionak eta ondo etofiak.

Mendiola.

Ermenegildok diraust, ez Badaya'tar Simonen yateak Olondora ta ez Endoreenak be, gafintziri ez daukala. Zergaitik ez ba? Ara, ofein yoatea, edozein yoatea lez izan da, eta iñork be ez dautsie urten, baña gu goazenean atso, agure, gaste ta ume guztiak be, bide bafian inguruan izango dira. Or yoateak ez dau ezer esan gura, notin, personak baño. ¡A! Ori olan bada gure osterori izango da buru. Muntzaraz alderdi-koak be badabiz ba, noiz izango ete dan yakin gurarik. Ba oraindiño ez esan, aldia dastofenean gustiok ya-kingo dabe-ta.

Egualdia.

Betosolo'ko Serapio'k egualdiko arazuetan laugafen malarra igon dau. ¿Titulue emongo ete dautsagu? Neure eretziz bai, baña beste batzuk dirastie seigafen malararte, ez emoteko. Eta bitartean yausten bada? Ba bafiro igon daiela. Ofaitiño biotz gogofekoak zarie. Oraingoan be ba ondo baño be obeto iragafi dau gero.

Luistaren yaiya.

Gaur gasteak yai ospetsuak pafokian egiteko asmua daukie. Zer egin-go dau EKIN'e an iragafi dan ezkeru iru edo lau bidar enoe bafiro esaten. Aufera gasteak bide ofetatik.

Irakasleri baria.

Munitxa'tar Inese irakasleri egin-da Bilbao'tik etxeratu da. Zorionak. TRAÑA

Legendika (Kanala).

Ereño'ra.

Batzokiaren zabalkundia ta ikufiñaren oneskundia zalata abertzale sutsu batzuek urten eben igandian Legendika'tik Ereño'rako. Goyak asafe agertu afen, aterkirik ez eben nai izan artu gaztienak, uste eben naikua zala azkari edo merienda ona eruatia-ta. Bidian zoyazala euriak jo eutsen eta bafuko itzaltasuna kentzeko zofua edegi, jan eta gero... adore barik biderdian geratu zirian. Azkari barik urten ebenak baña, elburura eldu ziran eta pozik biurtu be gauza edefak entzun da gero.

Naskaldia.

Intxausti'tar Karla «Bartolo» itxon-tziko buzkindari naguzia eta Ibarza-bal'tar Paul itxas-mutil gaztia be, emen agurtu doguz.

Gazteiz'en irakasle agerkaia artu ta etofi da Etxebafieta'tar Miren Karmele neskatilia be. Zorionak.

Bilbao'n ikasten egon dan Munia-tegi'tar Todor eta Sanander'en ikas-taroa igaro daben Itza'tar Biñor, etxe-ratu dira nota onakaz. Poztuten naz.

Intxausti'tar Karla eta Etxebafie-ta'tar Joseba Andoni mutikuek be pozik biurtu dira Bilbao'tik, Batxil-e-rako sarkunde edo ingresua egin da. Pozik dagoz mutilok! Esaten eban eurretari baten amak. Eta zeu ez ala? Bai ni be txo-txo! amabosta on-tan esture makalak igaro dodaz zeu-en asterketak diriala ta. Amar anei (kilo) galdu dodaz zeugaitik!—Ori olan bada, obeto litzateke amabosta bafu beste asterketa batzuek bageun-koz!—Zer ba?—Bnste amar anei gal-duta be iñork igafi be ez leuke egin-go zeuk esan ezik eta... ¡Txo-txo! *Castigau sin postre.*

ELIZ-MENDI

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK

AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n igali edo fruta ta basoko zugatzak. Landa, ta ortu - azijak. Zimafak; ko-kuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskizunak. Ortu ta barat-credubak.

Bermeo.

Pelota-tokijatzaz zerbait.

Bermeo'ko pelota tokija, ogeta bost lagunek osotuten daben gixa'dra bate-ko jaun baten ixenian eraendu zan bere ustiatzerako.

Eraen baldintzen artian, eraenduna-nak ufengo duan baldintzari utz emon ezkeru x laurleko gaz zigortua ixan-go dala diñuan baldintza bat dago.

«Udalaren aufetiko baimen barik pe-lota tokijan lan bafizterik astiagaitik». Zein dan pelota tokijaren beñiste lanak eraentzaliaren gain ixango dirala es-tia bestian. Tira ba; eraena bayestu ta aldi gitxi gafenian, pelotatokijan, lan batzuk egifen dira udalaren lepotik eta (1.600) anei ta seireun etik (1.700) anei ta saspireun arteko aldiñian, aufetiko dirutza edo presupuesto ez merkien egifen dabenari emote edo subasta ba-rik,

Ez oitua dirudin gauza onek, eleuke ainbestian esan biar pelota toki beñis-tiaren sati aundi bat; gaur endore or-dekua dogun Toja jaunak ustiatzen da-ben edaritegi edo kantiñiaren obakun-tzarako ixan dalako, beñistzalia bariz; zinegotzi ordekuua dogun Goyenetxe-aren osaba ta ugasaba ixan da, eta gai-ki iragotzaliak Teñeria anayak ixan dira, zeintzuberitako bat zinegotzi or-dekua dogu. «Oneik bai mofoyak eu-ren langilai lana emoteko» Bai ba on-do eifen dabe, lan ufikerija daguan al-di onetan lana norberetzat oba da iñor-entzatzat baño. Pelota tokijan lan au amaitu dabieneko beste lan bat dara-bile esku artian, diñuanez Bermeoko eñijaren gixakunde edo sibilisasiñorako eta gerostik au be udalaren lepotik. Bermeoko pelota tokija urdangaetxe edo neska lotsa galduken etxe biurtu gura daskube, ta ofetarako pelota to-kijan bafuban etxola bat egin dabe, etxola ofetan lotsa galduko antzerki, jantza zikin, eta beste zatarkeri gusti-jak egiteko. ¿Au ete da jaun ofeik ekañi nai deuskuben gixatasun eta auf-erapena? Beste efi batzuben jaurti eziñik dabiltzazan lotzabakokerijak eñiratutia ete-da auferapena? Ni lako gaste asko balegoz Bermeon jaun of-eik aldi gitxi bafu atz ein biarko leukie buruan. Gertu ba Bermeotar gastiak Bermeoren ixen on eta lotsa onagaitik.

NEU-NAI

Egurola Josia

LEKEITIO'n eta BERMEO'n Uzelal-kalean 16'gn.

Bilbo'ra deitu ezkeru, noz nai yoango da. Hotel Arana (Bidebafieta) edo «La Guipuzcoana» (Ledesma 6)

Oyalik onenak. Berebiziko artaziak

Ondaroa.

Usansolo'ko urijan Euzkadi'ren areyuan erail eben Iñaki San Miguel gasetxuararen alde, jaupa bat esan zan txadon nagusijan igasi dan aste-lenez.

Koldobikatarak.

Ileroko jaunartzia ixan geban igan-dez Koldobikatarak, uferaturik gaste asko mai donera.

Zoritxara.

Beste askogaz batera, Soraluze'ko jai aberkoyetara juan zan Ituarte'tar Koldobika mendigoxaliak ez-biar bat ixan eban. Bidian zerbait berotu zala-ta busti-aldi bat artzen asi zanian angu batzokijan, burdiñen bategaz edo, oñ-azpija gustiz zaurifuta gera-tu jakon.

Bederatzi-ufena.

Igazi dan aztelenian asi zan txadon-nagusijan Andoni deunaren ain-tzaz urtero egiten dan bederatzi-ufena.

Sabin-Etxia'ko gasetxuak.

Igandian Bizkai ziar ibilaldija egin eben Bilbao'ko Sabin-Etxia'ko ges-tetxuak alditxu baterako emen gera-tu ziran eta Batzokijan egin ebezan jolas-abestijakaz an egozan ainbat eta ainbaten txaluak irabazi.

ITURI-ONDO

JANTZIAK
gizonentzako Teadoro-nian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.
TOVALINA Y C.ª L. D.
SOMERA TT
BILBAO
Lenengo oñian sartukeria dendaik.

Lemona.

Asmu txalogaña.

Afata'ko ekandu, oitura garbi-zale aldra bat Andoni deunez, jolas-garbi-asia ereiten ei-doz eta, onetarako ondo baño obeto gertatuten ei-dabiz. Eureka bat egin dabenek efi oneta-ko txitxifi-matxafai itxi ta, gixonta-

suna ta garbitasuna laztan dabezan gixon zindoak dira; asmurik onena-gaz egun atan lau espatadantzari al-dra, gorulariak eta bost txistulari, bakotza bere zuzendariaren ardura-pian Urkiola'ratuko dira.

¡Neska-mutil gustiok! Andoni deu-nez Urkiola'ral Aintxe, Jaungoikoa'k eta gixontasunak aginduten daun lez jolasten.

Egualdia.

Gustiz edefa da aspaldion deuka-guna. Sapatuko ego-aixeak igali edo frutetan kalte aundiak egin dauzan-afen, arto, gari ta bedafak ur-epelez asetuta lerdend-ugari etofiko yakuzan itzaropena daukagu. Egia da, auxe eske gabiz beti, eta beti zer-esanka artoa ta lusagar edo patatea baño ez-toguzala yaten. Au dok itzela, gauza oneixok eskatu eurak koyetako oso nekatu arte lan egin eta gero eurok-gaitik protestau.

Ondo etofiak.

Vitoria'ko ikastetxe nagosia eu-ren arloak ondo amaitu-ta gurasoaka-natu dira yaupari-ikasle azkafak. Agur mutilak, eta ondo irabazi do-zuben atsedenan zorionak.

Bakotxari beria.

Aita Santua'ren idazkiak biotza samurtu ta begiak ezotu egin daus-kuz, askotan irakufi-ostian, neuk beintzat, orain artian lez auferantza be, Josu Biotza'ri il onetan egiten yakon eskarian auxe eskatuko dau-tsat: Euzkadigaz efukil!

AUZOKO

Eleiz - Jantzi ta urregintza
A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238
BILBAO

Meñaka.

Emakume.

Alaitasun andi bat euki dogu geure efiko mutilak ain ederto ezpata dantzia egiten ikasi dabiela ikusirik. Baña alaitasun onen ondoren tamala be izan dogu: ¿Ze tamal izan dogu ba? Jaunaren Zerura igokunde jayan ikusirik espatadantzari nagosijak, lenengo gure Arana-Goiri'tar Sabin'ak irakatsi euskuna dantza garbia ta gero agiñan krifiskadea baño beste-rik ezdagoan lekuko jolas baltz ma-darikatua jolastuten ikusita ¿Nor ta-maldu ez? Euren Tolosa'ko txapel gofi, gefiko orlegi ta praka zurijak ¿Zer itanduten dautsien ete-dakije? Txapel gofiak dauke deika ¿gu zer dala-ta gabiltz or jolas baltzian loitu-ten? Diñotzuet Donokiko gotzonen antzeko jaskija daukozuen zepata-dantzarijoi, or dantza baltzian ibilita ez dogula Euzkadi azkatuko.

ELIZ ALDE

Mañaria.

Bederatziufena.

Andoni deuna'ren bederatziufena, emeko Kurutze-Santu basatxonuan, igaroriko igandian asi zan. Deuna'ren andija (aldaria) zitiori txukunez apain-apain dala, iluntzijetan egifen da; ta jenterik asko elduten da.

Urkiola-ganian bertan be, egun be-ratan asita, Deun andi ofen aintzaz sekulako elizkizun edefak egiten di-ra.

Erijotza.

Igande gabian il zan Urien'dar Eustoque, «Labafondo-Efota»ko an-derea. Jaunak zeruan euki begi. Sen-dijari atsekabian laguntzen dautsogu.

Juan etorijak.

—Santurtze'tik etofi ziran Bartze-na'tar Agapita, Kapanaga'tar Baldo-mer eta Kapanaga'tar Danele bere lobatxuakaz. Ondo etofiak.

Antzoki'ra.

Larunbat gabian Durango'n Astarloa-Etxia'n ospatu zan antzoki-jaira, emetik be mutil batzuk juan ziran. Eta, an egin zan gustija atsegiñez ikusi ebela ta, ganeko egunetan, zer kontau ugeri ixan dabe. Antzerkilarijak goralduten, aborik be ezin ixan da be batu.

Zorionak ba, Durango'ko antzerkilari trebe oferi; bide ofetan jafaitzen bozue, abefijarentzat lan edefa egingo dozube.

Pozik.

Igandian Soraluze'ko jai-aberkoira juan ziranak, ango berbaldi edefakaz ta abar, benetan poztuta ehiratu ziran.

Atzeratu.

Emeko euzko-jaya, zortzi egun atzeratu dabe; beraz, datofen ila'ren 2'gn, (J. L.) ixango dogu.

MAÑARIKO

Getxo.

Eeeuep.

Agur «EKIN»en idazle ta irakurle gustijori. Emen nator neu be zubekana izpafingi onetara, neure efiko izpafak argitaldu nairik, tokirik edo ba dau.

Ofilaren bigafen astian bialdu «EKIN»era idazki bat eta eztozube argitaldu. Bidetan gelditu ixango zan? Uzte dot ori jazoko zala oztian orko artezkariak lea bai len argitalduko ebala neguan. (1).

Antzerki-jayak.

Datofen lafunbatean gabeko bederatziretan Euzko-Etxia'ko antzezlarijak jai eder bat emongo dabe «Gran Cinema Algorta» aretuan. Jai au ezpetzeratuen alde ixango da ta uzte dot euzkotar guztijok juango garela.

Egitaraba.

1.—Euzko ereserkija.

2.—«Alma Vasca» iru ataletan Biar'tar Nikola'ren antzerki ikusgafija. Txartelak Euzko-Etxia'n salduko dira aztartetik barikura, gabeko zortzitik bederatziretara.

Ibiltaldija.

Euzko-Ikastola'ko ikaslien ibiltaldia lengo iganderako egozan, baña tamalez, eguraldi txafa egualako, atzeratu ziran juan barik. Ez lafitu umetxuok, ufengoan ixango da-ta.

Beste ibiltaldi bat be laster ixango da efi onetan, euzko-ikaslenak. Ikaskayak amatu dabezanari idaztijak eta ibiltaldiak emoten dautsiez urte guztijetan.

EUZKEL-IKASLE BAT

(1) Etzan eldu nire eskuetara. Nun ete dabil? Ongi-etoria ta jafai aufera.

Erigoiti.

1616.

Martin de Afiaga zan urte onetan elexako mayordomu nagozie. Urte onetan il zan Juan de Urlezaga, ta testamentuen itxi zituet duket bi, ein zan txingili bafie ordainduteko. Martin de Landak itxi ebazan urtean amabost efeal elexeari emoteko. Uri-guengo etzeak be urtean amaika efeal emon beafa eukan. Asi euden demanda bat elexaren ugesaba edo patro-yagaz, eta demanda oni yafaituteko etze guztiek emon euden dirue ta elexeari be tokau yakon amairu efeal emotea. Abogadueri be papalak eiteagaitik lau efeal emon yakozan. Pedro de Mendia epaikariari beste sei efeal. Ellexeari ukutuen bat eiten be erabili zituezan egun baten emeretzi langile. Egun bien azikiñek (primiziek) batzen ibiltea be kosta zan sei efeal. Lumo'ko mayordomu Juan de Abalizeri emon yakozan ogeta amasei duket, len berak emonda eukazalako Juan de Gimenez eta bere koñatu kanpagiñei. Zor guztiek ordaindu ta geratu zirian 8.984 marabedi.

Erlotsa.

Pedro de Orbe, Zubiakoa, il da. (G. B.) Lagunduten deutsegu atsekabeen bere sendiari. EKIN'en irakurle zintzoa izan da.

Etze bariek.

Salobanten eiten da etze bafi bat. Baite Elexalden, Josepa'n etzean, toki bafi bat ein dabe Batzokitzat.

Ibarangelu.

Ofilako lorak amaitu eta Jesusen Biotzaren ilian sartu gara, Ofilako eleizkizunak ondo atsegin izaten izan yakuz; ila onetakuak be eztira gitxiagorako, bada euretara eltzen dan notintziari begiratuta baño eztago ta bertan geure Jesusen Biotz doniari abestuten dautzezan euskerazko abestiak ondo gozo eta samufak dira.

Ereño'ra.

Igaro dan igandian Ereño'n euzko-jayak zirala-ta, geure efitik be jai ori ospatufen batzuren-batzuk juan ziran, eguraldi euritsua ixan zan afen, jaonek bai abertzaliak!, baña efiian batzuren batzuk gelditu ziran malkuak dariozela Ereño'ra ezin juan izatiagaz.

Eurak inuanez notintza edefa batu eizan, karmeldar Lontzi Aba izan ei zan txonislari. Arek egin ei-eban itzaldia edefa ei-zan seguru be.

Endore jaunak ez ei eban laketu gure mesa ostian auzeskurik egiten, baña ofaitiño esanak-esan eginda, aufeskutxu bat egiten itxi biar izan eban. Bai ba, euria zan lez, bildurtu egingo zan «pulmonia» edo ofelakoren bat afapau eztaien an ibili ziran abertzaliak. ¡Bayagok obarik!

Jayak.

Datofen astian geure efiko jayak dira eta inoizko zer ikusirik aundienak eukiko doguz. Lekeitio'ko eta Gernika'ko Batzokiko pelotaririk onenak emen izango dira ta beste bafe egiteko gauza asko be bai, lekurik ezaz emen ezin jafi neikezanan. Beraz albo efietako gastioak badakizue nun dagozan bafe egiteko eta jolastuteko jayak.

Ikaskintzatatik etofita geure artian aurkitzen dira Zubieta'tar Ihon eta bere afeba Esperantze, Zubieta'tar Epi, Etxeandia'tar Miren Joseba eta Ziluaga'tar Txomin. Onek gustiok Gazteiz'tik. Baita be geure artian aurkitzen da irakasleme ikastiak amaituta Azpiazu'tar Biñore. Zorionak eta ondo etofiak gustiori. Neure gogorik sutsuena zeuen opor aldiok ondo igaro daizuezala zeuen sendietan.

LUGIN-ZAR

Bermeo.

«Neu-Nal»ri.

Ene gogoko adizkide: Artezkarri yaunak diñon lez asafekuntza txikiyenik be ez dot euki ez beragaz, ez-da zeugaz be, beñik-bein neuk dakidanez, nor zarien be ez dakit-eta. Safi idaztia gatx yatala baño beste akatzik, gai onetzaz, nigan ez-yakok. Besteren batek lagundu albaleu, mesede egingo leuskigu.

Andoni Deuna'ri.

Bederatzi-aufen ospatsu bat dago-tse Andoni Deuna'ri lekaide-txadonan. Notintza andiya dabil. Ezkatu ba berari biarizana be ba-dago-ta.

Katoliku-Ekintza.

«Katoliku-Ekintza»ko emakumiak bizkor d'rautse lanian kistar ikasbidia umiari irakatsi-azoteko asmoz. Ekin sendaro ta iraupenez nun lan egin ba-dago-ta.

Zuru-mufua.

Zuru-mufu andiya dabil efiko gentien artien. Ezkertafak ba miziye be amaitu dabiela ta alkafekin musturka asi-eidira. Ta Udal-etxe'tik alde egin da be ezer ez-eileukie galduko. Neu be ofetan nago.

Itzaldija.

Euzko-Abertzale-Alderdiak atonduta itzaldi edefak egin dabiez. Itzariyak izan dira, Zabala'tar Miren, Basaldua'tar Kepa ta Biteri'tar Bingen; gustiz ederto aldeztu ebezan Jaungoiko ta Abefiya. Notintza ikeragafiyak entzun eutsien. Gustiyari geure zorion-agufa.

Afantzaliak.

Azpalditxuan ezer-ez andiyak yo dituz emengo afantzaliak. Len igandea ta yai afantzuan, orain bafiz aztegunez bez. Bai ba, geure ezkuak be ez-daukagu ta Yaunari eskatu biar, Berak lagundu dagizkun. Ba yanari utsez ez-da gizonen biziya; baita be, bear da siñestu ta egin Yauna'ren agintzak eta Yauna'ri zor dautsagun egintzarik andiyen bat da Yaupa deuna entzutia, domeka ta yaiegunak yai egiñaz.

ATXURKULU

Areatza (Villaro).

Bederatziufena.

Andoni Deuna'n bederatziefenai asteleneko seiretako mesan emon yakon asieria; euzkeraz gero.

Poz andia artu gindun era ofetara egitiagaz. Alegindu gaitzezan gustiok bertara joaten.

Zorionak Agifezabalaga jaunari.

Bada beste toki bat bere.

Mutil neskatotxuari Euzko-jantza politak eta oitura onak erakusten dabizena baña... euren artian nenguala Pozuelos'en ete nenguan uste neban. ¡Ango erderial!

Euzko jantzak eta erderazko izketia abarka-mantetan gorbetia lez jaus-tenda.

Endore edo Alkate jauna:

Ituri-bidea ta kanposantua atondutia efiak pozik ikusiko leuke.

Ilonen 10 ixentau da Urkiolara efofatibe egiteko.

Urte guztijetan egiten da Andoni Deuna'ri yakon eraspene edo (deboziñua) gaiti.

Egualdiak laguntzen badau oste andia izango dala uste dot.

EUZKELTZAILE BAT.

Beriatua.

Nekazaritza.

Gogor diardue-lur langileak artajofan eta ostantzeko basefi lanetan. Euri eske egon baginian ere, orain lufak ondo bustiak arkitzen dirade ta gure naia orain litzake eguzki beroa.

Jesus'en Biotzaren ila.

Eleiz nagusian egiten dira Jesus'en Biotza'ren ileko otoitzak zortziretako meza bitartean. Saiagaitean al dogun guztioak eleizkizun ofetara joaten.

Espata-dantzariak.

Txorien antzera espata-dantzari taldea saltoka ikusten degu, egunero, nai batzokian nai txaidean. Polito doiez auferatzen ta nere ustean mutil koskor pizkor oyeke nun nai agertze-ko ez dute lotsarik izango.

Bagila'ren 11 Markiñara.

Egun onetako jai aberkoi bat eraldu dute Markiñako abertzaliak. Itzari bikañak itz egingo dute eta egi sakonak esan ere bai. Gustiok joan bear genduke bañan batez ere basetzetan bizi zeratenak afen joaten saiatu zaitezte, bada gustioi konbeni jakuz entzutea eta jakiñen ganean egotea jaun ospetsuak erabiliko dituzten gaiak.

Osatzen.

Obetotxuago arkitzen da Laka'tar Jospiñasi. Ainbat ariñen bizkortzia opa deusagau.

Juan-etoriak.

Urteko ikazkizunai amaiera on bat egin ondoren, udarako opor egunak igarotzera etofi dira jaupalgai edo seminarista gasteak. Gazteiz'tik Sazar'dar Andoni, Satufarandik Pagoa-

ga'tar Juan eta Eluztondo'tar Iñaki, Zorionak gustiai eta urte askotan ofela jafaitu.

Bilbo'tik Barbero'tar Leonor ande-reñoa.

IGERAIZ

Aulestia.

Elgoibar'en.

Igaro dan ilaren 28'an Elgoibar'en izan ziran jai aberkoyetara efi onetatik be lagun asko joan gintzazan. Emakumiak ixan eben euren ikufiñabe, gustijok poz-pozik biurtu giñan.

Markiñara.

Igandian il onen 11'an Markiñan egingo diran jai ospatsuetara joateko gar aundija dago, batez be gastien artian, ta uste dogu, abertzalerik bat bakafik be ez dala geratuko etxean.

Osategian.

Bilbao-ko osategian dago osatebatia edo operaziñoyo egin da Landeta-tar Jose efi, onetako Uri Buru Batzafeko ordezkarija dan abertzale zintsua. Ainbat ariñen gustiz osatuta datofela opa deutsegu ba, geure, lagun on eta zintzuari.

Arpidia.

Beste efijetan lez eri onetan be, Uri - Buru - Batzafak arpidia edegita dauko espetsian dagozan geure anai abertzalieri lagunduteko eta badakizube irakurliak zerbait emon nai dabena ainbat ariñen emon dayela laster arpidia safatuteko ustia dogu-ta.

Dabizenak.

Emen aurkituten dira, euren oporketa edo bakazinoyak igaroten etofita, Urkidi-tar Lucia ta Jone neskatila gastiak.

Eskontza.

Igaro zan astian eskondu zan Espila-tar Martina, efi onetako neskatila gastia, Donostiko mutil gaste bategaz. Zofion ugariak opa dautzuedaz zeuen bizitza bafijan.

ILUNZAR

Forua.

Jai aberkoya.

Ila onen 11'an okefik ezpada jai eder bat izango dogu (J. L.) Batzoki eta E. A. B. urteufena ospatzeko. Goizean Jaun-artze orokofa, 11¹/₂tan jaupa ixila, baita oturuntza be, afatsaldian itzaldi edefak izango dira. Itzarijak Gernika'ko seme ospetsu bi izango dira. ¿Nortzuk? Oi ori gero ikusiko dozue. Antzerki eder bat be izango da, ba gogor diñardue «Ibai-gane» ta bere lagunak gertakizunak egiten. Aufera.

«Mañon-aitzparua»ri.

Agur adizkide; nor zaran eztaiki ainbat egazkada egin dot zeure bila,

baña ez zaitut inun idoroten; gaste-gastia zaranik ez dot uste, bai, ¿zuzmau ete zaitut? Dana dala poztik irakuriko neuke zeure beste idazle bat.

Il dana.

Zendagorta'tar Miren igasi dan igandean il zan, beren obiratzea astelenian izan zan, ainbat emakume eta gixonezko lagundurik beren atsedan tokirarte (G. B.).

ELEIZ-TXORJA

Guk ezagutu ez afen, ondar on ala txarik barik ezerbez eztaala igaroten esan lei. Orain ilebeteginguruko boto edo autezkundiak ze ondar itxi ete dabe emen? Txar barik ona ixan dabiten lotsafen ezer, be, ezta kidalako, zeozar esatea bururatu yat. EKIN eder onek aldi atan aitatu eban gure banatasun negargafija eta bertan aitatu daitela alkartasun eta maitasun pozgariaren guraria, be; eta neure ez jakifenez ezta ipinten ba'dot arteztuteko gerturik nago.

Nik beintzat ezin aitu dodaz banatasun eta eskertasun onek; ezin zifinistu emen eskertarik edo baltzik, oraingo agintari Jaungoikobako, Jesukristo eta bere Elexiaren areririk dagoanik, botoz euren buru eta indafak onei saltzekorik, eurokin soka bat egiñaz eta euren gaiztakerijetan lagunduaz naiz erditetik naiz atseskutik. Egintzetan arerio dira; esaterako nik beti ikusi dot sutze edo etxe efe bat danian auzoti gustia batera sua itxultzera jauten, efiko edozeñen zoritxara nobarena letxe artea, efi on zaleak izatea egizko erkal edo efepublikanuk lez, oraingo agintariak, ostera, jakin afen gaizkileak edo su-emoleak dagozala geldi itxi dautse kalte egiten jaubai, negar eragiten eta abar. ¡Irakatsi baltz eta iluna emen inoiz ikusi be ezta gaizkiliari lagunduta, bere alde jartia, zoritxaratan poztutia!

Ezin izan leike emengo eskertarik irakatsi negargafi- eta dan danentzat eta gorantza begiratu barik — euren lengo oitura zuri ta edefa baño obatzat eukitia; zelan, ba, euren botoz ofen alde jafi? Eztaikit; aurki eurok nagusi izateafen, eurenaz urtetiafen, gaur irabaste izatiafen; gomutau barik olako irabazijak azkena galtzaliena daukela, ezpai barik; irakatsi txafari indafa emotea negar eta zoritxafari giltza edegitea dala, basora egufetan joatea letxe noberen lepoan egufak apurtzeko. Jaungoiko bako eskertafak on iraukorfik inorentzat be eztauko, sugiek eurek baño argibide gitxiago daukelako; sugiek aldan edena euki afen eta gerturik kalte egiteko, geldi itxi ezkerro, geyenez, iges egiten dabe; baña Jaunpoiko bako basatijak ofenbeste be eztaiki eta geldi dagoanari eta iges doienari, be, negar eragiten dautso, bera negar ofetan poztuaz. ¡Jaungoiko bako onena baño Jaungoikodun txafena oba! ¡Solorako bedarik!



¿Itxasontzijen jabe ala Itxasketa-Bazkun bateko bazkide ete zara?

¿Zeure salkariak inora bidaltzen ete dozuz itxasoz?

¿Zeure ekintzarako ala salostetzerako salkaririk itxasoz inondik artzen ete dozu?

Izan leyezan afiskuertzaz, gitxi ordainduta eskier ixan gura bazara; oketik, galtzerik dabenean, laster eta zuzen, yaotzuna artu gura ba dozu, zeure ogitukuai.

«La Polar» Eskier-Bazkun

Bilbo'n Hurtado de Amezaga 8=Ufutziklña 9797

eskiertu dagiezala agindu.

Bazkun au Euzko-Erijan sortuaz ganera geure Erian geyen itxas-afiskuak eskiertzen dauzadana.